

## KANALAK

Balorezko proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresa merkatu-segmentuetaraino iristeko, komunikazio kanal desberdinak erabiliko ditu.

Lehenik, familietara ailegatzeko, hiru komunikazio kanal erabiliko ditugu; umeen futbol taldeak, umeak bitartekari izanda, familia osoraino iritsi ahal garelako, hitzaldiak edota aurkezpenak eginez; gurasoen elkarteak (IGE - AMPA), beraiekin kontaktuan jarrita, eskolekin harremanetan jartzea errazagoa izango bailitzateke; eta azkenik, Facebooka, gaur egun sare sozialak eragin handiena duten komunikazio kanala baitira, eta Facebook-a baita, heldu gehienak erabiltzen dutena.

Bigarrenik, gazteera ailegatzeko, beste hiru komunikazio kanal ditugu; sare sozialak, gazteak baitira sare sozial gehien kontzuminatzen duten segmentua; Durangoko azoka, kartelak itsatziz, gure helburuak partekatzen dituzten gazte askoraino iritsi ahal garelako, azoka horretan guk hedatu nahi ditugun printzipio berdinak zabaltzen direlako; eta bukatzeko, musika festibalak, kartelak jarritz, gazte askoren arreta erakarri baitezakegu.

Horrez gain, umeetara ailegatzeko, bi kanal izango ditugu; ikastolak edota eskolak, beraien bitartez zenbait hitzaldi edo tailer egingo baitezakegu umeekin gu ezagurazteko; eta gurasoen bitartez, lehen esan dugun moduan IGE - AMPA bezalako guraso elkarten bitartez.

Azkenik, gure ekintzetara apuntatzeko sare sozialak, web orrialdea eta enpresaren g-maila eskuragarri izango dituzte, baita dudaren bat edukitzekotan ere.

